




HIRI-MUGIKOR- TASUNARI ETA PARTAIDETZA- PROZESUEI BURUZKO LANTEGIA

IRAUNKORTASUNAREN BEHATOKIA
CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

Edizioa:
Iraunkortasunaren Behatokia
Cristina Enea Fundazioa
Mandasko Dukearen ibilbidea, 66
20012 Donostia
943 453526
observatoriosostenibilidadss@donostia.org
cristinaenea@donostia.org
www.cristinaenea.org

Koordinazioa:
Manu González Baragaña
Lehenengo edizioa: 2010eko uztaila
Diseinua: Xavier Balderas

 100% paper birziklatua.

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------|----|
| Sarrera | 4 |
| Garapena eta gogoetak | 6 |
| 1 Ariketa | 6 |
| 2 Ariketa | 7 |
| 3 Ariketa | 9 |
| · Zailtasunak | 10 |
| · Abantailak eta Onurak | 13 |
| Zenbait ondorio | 15 |

SARRERA

Txosten honek jasotzen ditu “*Hiri-mugikortasuna eta partaidetza-prozesuak*” lantegian parte hartu dutenen gogoetak eta iritziak. Lantegia Cristina Enea Fundazioko Ingurumen Baliabideen Etxean egin zen iazko irailaren 21ean, **2009ko Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen** baitan, Donostiako Udalak eta Kristina Enea Fundazioak antolatutako jardueren artean.

Lantegiaren lehen zatian Eduardo Malagonek¹ Europako Move Together (www.move-together.net) proiektuan izandako esperientzia aurkeztu zuen, eta bisita gidatua egin zen herritarrek mugikortasun iraunkorraren alorreko Europako politikari buruz duten ikuspegia jasotzeko antolatutako erakusketa batera².

Lantegiaren helburua bikoitza zen: batetik, Malagonen ahotik jasotzea Europako partaidetza-prozesuen berri eta, bestetik, talde-gogoeta egitea, norbanakoen bizipenetatik abiatuta, EAEko hainbat udal gauzatzen ari diren mugikortasun-politika eta planei buruz eta, zehatzago, horiek diseinatu, indarrean jarri eta emaitzak aztertzeko jendearen partaidetzak ekar ditzakeen zailtasunak eta abantailak eztabaidatzea.

Askotariko pertsonak bildu ziren lantegian, hamazazpi, guztira: mugikortasun, partaidetza eta Agenda 21 sailtako teknikariak, elkarrekin aktiboetako teknikariak eta lantegiak lantzen zituen gaietan adituak diren aholkularitza-enpresetako ordezkariak (erantsi partaideen zerrenda).

1) Eduardo Malagon donostiarra aukeratu zuten Espainiaren ordezkari-lanak egiteko, Europar Batasuneko beste estatuetakoko hogeita bost pertsona bildu zituen bileran. Askotariko boluntario-talde horrek Europar Batasuneko mugikortasun-politikak aztertu zituen, bakoitzak bere ikuspuntua emanez, mugikortasun iraunkorrako bat bilatzeko helburuarekin.

2) Cristina Enea Fundazioaren webgunean kontsulta daiteke: www.cristinaenea.org

Partehartzaileak

| Izen-abizenak | Erakundea |
|-------------------|---|
| Leire Agirre | Donostiako udala |
| Amaia Agirreolea | Donostiako udala |
| Iñaki Azkarate | Errenteriako udala |
| Mikel Balerdi | Tolosako udala |
| Mikel Bringas | Bizikleta erabiltzailea |
| Itziar Eizaguirre | Mirua 21 |
| Manu González | Cristina Enea Fundazioko Iraunkortasunaren Behatokia |
| Txema Hernández | Cristina Enea Fundazioa |
| Nerea Ibañez | Arazi |
| Pablo Isusi | Bilboko udala |
| Ana López | Enea |
| Eduardo Malagón | |
| Elen Mendiola | Cristina Enea Fundazioa |
| Nerea Ollokiegi | Zarauzko udala |
| Higinio Otazu | Kalapie |
| Isabel Prieto | Donostiako udaleko laguntza teknikoa |
| Eva Salaberria | Donostiako udala |

GARAPENA ETA GOGOETAK


Donostiako Udaleko Herritarren Partaidetza Saileko teknikarien zuzendaritzapean, hiru ariketa egin ziren herritarren partaidetza-prozesuak aztertzeko asmoz Mugikortasun Iraunkorreko Planetan.

1 ARIKETA:

Lehen ariketaren asmoa lantegiko partaideen iritzia modu azkar eta errazean agerraraztea zen, mugikortasun iraunkorraren alorrean udalek abiarazi nahi dituzten ekimenetan jendeak parte hartzeko beharrari eta interesari dagokionez, hain zuzen ere.

Horretarako, horma-irudi batean marraztutako dianaren gainean fitxa bat jartzeko eskatu zitzaizkien, mugikortasunaren alorrean udalek bultzatzen dituzten ekimenetan partaidetza-prozesuak garatzeko beharrari buruz zeukaten iritziarekin (norberaren bizipenak alde batera utzita).

Guztien erantzunak berdintsuak izan ziren. **Gehienak mugikortasun-politikak bultzatzeko orduan partaidetza-prozesuak abiaraztearen aldekoak ziren.**




2 ARIKETA:

Bigarren ariketaren helburua, berriz, partaidetza-prozesuak sortu, indarrean jarri edo abiarazten diren uneari edo uneei buruz bakoitzaren iritzia edo bizipenak jasotzea zen. Hau da, iritziak jasotzea mugikortasunaren plangintza eta kudeaketa egitean udalerrietan gertatzen denari buruz, partaidetza-prozesuen garapenari dagokionez.

Honako galdera hau egin zitzaizkien: *“Mugikortasun iraunkorraren politika eta planak zehazteko eta indarrean jartzeko, zein unetan txertatzen da herritarren partaidetza?”* Ariketa egiteko, mugikortasun-plan bat egiteko prozesuaren hirualdiak (hiru zutabetan) adierazten zituen horma-irudi bat erabili zuten:

- Planaren diseinatze- eta lantze-aldia.
- Planean jasotako ekintzak indarrean jarri eta garatzeko aldia.
- Plana edo egindako ekintzak ebaluatzeko aldia edo prozesuak.

Ariketa honetan, partaideek paper bat jarri behar zuten hiru zutabeetako batean, beren ustez mugikortasun iraunkorreko planetan herritarrek zein alditan parte hartu ohi duten adierazteko.



Askotariko erantzunak izan ziren, baina gehien hautatukoa plan edo egitasmoen diseinu-aldia izan zen, eta batzuetan horiek indarrean jartzekoa. Agerian gelditu zen, ordea, garatutako programen edo jardueren jarraipenean eta ebaluaketan herritarren partaidetza ez dela batere ohikoa.

Hauek dira egindako eztabaidan jasotako ideia eta iritzi nagusiak:

- Herri-administrazioak ahalegin handiak egiten ari dira Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planak (HMIP) egiteko, baina gutxiago horiek lantzean partaidetza-prozesuak garatzeko. Egia da HMIPak egiteko orduan, eta batez ere hasieran, herritar eragileen parte-hartzea bilatzen dela. Hau da, HMIP lantzen duten taldeek partaidetza bultzatzen dute, baina faltan sumatzen da partaidetza-plan bat, prozesu osoan herritarren partaidetza kontuan hartu eta bermatuko duena.
- Mugikortasun alorreko partaidetza-prozesuak ohikoagoak dira herrietan. Aldundiko eta erkidegoko erakundeek, berriz, gutxiago baliatzen dituzte. Partehartzaileetako batek aipatu bezala, *“administrazioaren hierarkian zenbat eta gorago egin, orduan eta urriagoa da partaidetza”*.
- Mugikortasun-alorrean eskumenak dituzten organo eta erakundeen arteko koordinaziorik ezak eragozten edo zailtzen du herritarren partaidetza.
- Sumatzen da, orobat, mugikortasunarekin lotutako gai batzuetan uko egiten zaiola herrietako eragile interesdunekin partaidetza-prozesuak garatzeari; bide-azpiegitura handiei edo tren-garraio ereduie buruzko erabakietan, adibidez.
- Era berean, ez da partaidetza-prozesurik antzematen garraio publikoen alorreko ekintzak antolatzeko orduan.
- Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, funtsezkoak izan dira gizarte-eragileen (bizikleta-erabiltzaileen elkarteak) partaidetza eta eskaerak, garraiobide horretara egokitutako gune publikoak arautzeari eta azpiegiturak (bidegorriak, esaterako) garatzeari buruzko erabaki politikoak bultzatzeko orduan. Bizikleta bidezko

mugikortasunaren arloan badaudela partaidetza-prozesuak adierazi dute, batez ere plangintza- eta diseinu-aldietan, eta gutxiago emaitzak aztertzean eta jardueren jarraipena egitean.

- Oro har, ez dute uste egiten diren jardueren emaitzak sistematikoki aztertzeko ohitura dagoenik, eta gutxiago partaidetzaren bidez.
- Mugikortasunaren alorrean eta garraiobideen erabilerari dagokionez, ezinbestekoa da errotiko kultura-aldaketa motordun ibilgailu pribatuaren nonahikotasunak indarra gal dezan. Horretarako, funtsezkoa deritzote herritarren zein talderik aktiboenen partaidetzari eta laguntzari.

3 ARIKETA:

Hirugarren ariketan, mugikortasun iraunkorraren arloko plangintza edota jarduerak lantzean partaidetza-prozesuak txertatzeak dakartzan abantailak eta onurak zehatu zituzten. Horrez gainera, jardun horretan herritarren partaidetza txertatzeak sor ditzakeen zailtasunak bilatu behar ziren, hau da, zehatu behar zuten zein zailtasun eta arazo dakartzan mugikortasunaren alorrean udalek bultzatzen dituzten ekimenetan herritarren parte-hartzeak, baita aipaturiko planak garatzerako orduan herritarren partehartzeak eginiko ekarpenen onurak ere.

Dificultades

Zailtasun-zerrenda luzea izan zen. Gogoetan, ezein partaidetza-prozesutan azaleratzen diren zailtasunak eta mugak aipatu ziren, eta baita mugikortasunaren alorreko udal-politika eta -jarduerak zehazteko orduan sortzen diren alderdi bereziagoak ere.

ALDERDI OROKORRAK

Prozesu partehartzaileen artikulazioak -administrazio publikoek garatu eta abian jarritako plan eta programetan- prozesua atzeratu ditzaketan oztupo garrantzitsuekin topo egin dezake.

PARTE-HARTZEA EZ DA INPROBISATZEN

- Planak eta programak garatzen hasteko garaian ez dago ez planifikaziorik ezta partehartze prozesuaren integrazioerik ere.
- Prozesu bakoitzean partaidetzaren helburuak zehatu beharra daude.
- "Arauek" ez dira behar bezala zehazten partehartze prozesuaren hasieran. Partaidetza sustatzen duten lanabesak artikulatzea beharrezkoa da.
- Proiektu bakoitzaren hasieran ez da zehazten partaidetzaren helburua zein den: erabaki bat hartzea, iritzia eskatzea, eta abar.
- Ez dago jendearen motibaziorik proiektuetan parte hartzeko. Proiektuek ez dituzte beren itxaropenak asetzen.
- Partaidetzarako erabilitako motibazio-metodoa baztertzaila izan daiteke.
- Partaidetza-prozesu bat gauzatzeko prest ez dauden pertsonen presentziak prozesua atzeratu dezakete.

- Hasieratik gaizki planeatutako prozesuen aurrean eszeptizismoa nabari da denen artean (politikariak, teknikariak, eragile partehartzaileak...).

PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN KONPROMISOA

- Ez dute borondate politikorik partaidetzari dagokionez.
- Arduradun politikoen buruzagitza gabezia.
- Administrazio teknika-uzkurkeriak.
- Aholkularitza-organoetan edo erabakigarriak ez diren organoetan partaidetza bultzatu behar da.

PARTAIDETZA-PROZESUETAKO GABEZIA BATZUK

- Ez dira informazio- eta partaidetza-prozesuak bereizten.
- Partaidetza-kultura eskasa daukagu, hortaz, ez dago talde-kontzientziarik, kolektiboki eginikoarekiko baliorik.
- Saiotan norberaren ikuspuntu pertsonala azaltzen da gehien bat, elkarte edo enpresa baten izenean jarduten bada ere.
- Parte hartu ondoren ez da hautematen gatazkak konpondu direla.

ZENBAIT MUGA

- Proiektuak geldotu egiten dira.

MUGIKORTASUNAREN ARLOKO PARTAIDETZA-PROZESUAK

Mugikortasunari lotutako arazoak, besteak beste motordun ibilgailuen erabilerearen nagusitasuna, garraio ezberdinen elkarbizitza, gune publikoen gehiegizko erabilera, herri eta hirien konfigurazioa e.a., berezko espezifikazioak daramatzate beren baitan, partaidetza prozesuetan.

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN KONTZEPTUA

- "Mugikortasun iraunkorra" kontzeptuak zehatu gabe dirau, badirudi eraikitzen ari den zerbait dela, eta horrek partaidetza zailtzen du.
- Administrazioak mugikortasunaren alorrean egiten dituen proposamen batzuk ez datoz bat iraunkortasunarekin.

GATAZKA ETA PARTE-HARTZEA

- Partaidetzak ez du gatazka ekiditen partaidetzak ez dakar adostasuna.
- Partaidetza-prozesu gatazkatsuak baldintzatu egiten dira.

KULTURA NAGUSIA MOTORDUN IBILGAILU PRIBATUAREN ALDEKOA DA

- Aurkariak egon ohi dira beti mugikortasun jasangarriaren arloko ekimenen bat proposatzen denean.
- Partaidetza-prozesuak bukatugabeak eta zeharkakoak dira jendeak ez baldin badu arloari buruzko ezaguerarik edo sentiberatzerik.
- Mugikortasunarekin eta gune publikoen erabilerarekin lotutako arazoak oso konplexuak dira.

ESKUMEN-ESPARRU BAT BAINO GEHIAGO

- Administrazio berean, sail bakoitzak ikuspuntu eta estategia bat du.
- Guztiei atsegin eman nahian, administrazio eskuduna eskizofreniak jota dagoelako sentipena.
- Talde interesdunen presioa.
- Informazio-saio bat antolatzen bada ez doa inor, baina, partaidetza-saio bat antolatuz gero bai, jendea protesta egitera joaten baita.
- Hainbat maila hautematen dira partaidetzaren alorrean.
- Errazagoa da tokiko administrazioetara hurbiltzea aldundietara baino.

EMAITZEN IRISMENA

- Partaidetza-prozesu bat sustatzen denean eta arrakastatsua denean, gehiago ahalegindu beharko lirateke lorpena erakundearekin lotzen, erakunde horrekiko konfiantza sor dadin.
- Ez da hautematen administrazioak berak sustatzen duela proiektua.
- Jendeak ez daki proiektua erabakitzeko edo/eta bere konfigurazioa herritarren partaidetzak eragina izan duen ala ez.

Abantailak eta Onurak

Zailtasunekin gertatu bezala, abantailen eta onuren zerrenda ere askotarikoa izan zen oso. Gogoetan, ezein partaidetza-prozesuk dakartzan abantaila eta onura orokorrak aipatu ziren, baina baita mugikortasunaren alorreko udal-politika eta -jarduerak zehazteko orduan sortzen diren alderdi zehatzagoak ere.

ALDERDI OROKORRAK

Ingurumenaren testuinguruan, informazioa eskuratzeko erraztasunak eta erabakiak hartzerako garaian publikoaren partehartze handiagoak ahalbidetzen dute erabaki hobek hartzea eta modu eraginkorragoan aplikatzea; laguntzen dute baita ere ingurumen arazoekiko jendea sentsibilizatzen; beren kezkek adierazteko aukera eskaintzen dute eta agintari publikoek kontuan har ditzaten laguntzen dute (Aarhuseko Hitzarmenaren Hitzaurrea, informazioa eskuratzeari, erabakietan herritarren partehartzeari eta ingurumen auzietan Justiziaren eskuhartzeari buruzkoa).

- Plangintza eta gogoeta estrategikoko prozesuak zilegitzen ditu.
- Prozesua ongi eginez gero, sinesgarritasuna ematen dio erakundeari. Jendearen konpromisoa eta laguntza lortzen da neurriak indarrean jartzeko orduan.
- Gizartearen heldutasunari laguntzen dio.
- Inplikaturik dauden eragileek batak bestearengandik ikasten dute. Ikuspuntu ezberdinak bateratzen laguntzen du. Jarrera ezberdinen artean adostasuna bilatzen laguntzen du.
- Herritar gisa balio izatearen sentipena hobetzen du.
- Partaidetza- eta elkarrizketa-kultura sortzen dira.
- Erakundeak herritarrengana gerturatzen ditu eta, horren ondorioz, herritarrek gauzak zergatik gertatzen diren eta erabakiak zergatik hartzen diren ulertzen dute.

MUGIKORTASUNAREN ARLOKO PARTAIDETZA-PROZESUAK

Mugikortasunak hirietan dituen arazo ugari konpontzeak herritarren partehartzea eskatzen du. Konplizitateak aurkitzeko eta sinergiak sortzeko aukera dira prozesu partehartzaileak.

DIAGNOSIAN

- Arazoak, interesak eta ikuspuntu ezberdinak hobeto ezagutzen dira.
- Aurrez kontuan hartu ez diren alderdiak antzeman daitezke.
- Errealitate konplexua hautemateko hainbat modu jaso daitezke.

PROPOSAMENETAN

- Helburuak hobeto zehazten laguntzen dute.
- Mugikortasuna, ondo bideratuz gero, herritarrengana erraz iris daitezkeen gaia da. Izan ere, jende guztia ibiltzen da oinez, eta askok garraio publikoren bat erabiltzen dute noizbait, zenbait bizikletaz mugitzen dira, eta beste batzuek autoaren kulturen parte hartzen dute, autoa erabiliz eta aparkalekua bilatuz.
- Herritarren beharrianei lotuago dauden proiektuak lortzen dira.
- Beste proiektu eta partaidetza-prozesu batzuen motor bihurtu daitezke, herritarrek esku-hartzeko beste arlo batzuetan. Sinergiak biderkatzen eta sortzen ditu.
- Mugikortasunean partaidetza garatuz, beste gai batzuei buruzko informazioa eta sentiberatzea sortzen da: kutsadura, klima-aldaketa, biodibertsitatea, lurraldea...
- Emaitzak denon artean lortutakoak dira eta, horrenbestez, eraginkorragoak.
- Sozialki onargarriak, eta ondorioz garapenean bideragarriagoak izan daitezkeen soluzio eta alternatibak bereizten laguntzen du.
- Indarrean jarritako ideiak zilegitzen eta eragileen parte-hartzea lortzen laguntzen du.
- Gardentasuna areagotzen da eta administrazioaren mugak non dauden ikusten uzten du.

ZENBAIT ONDORIO

Lantegia garatzeko izandako denbora faltaren ondorioz, ez zen denbora nahikorik izan ondorioak ateratzeko. Nolanahi ere, atal honetan jasota daude proposatu ziren ideietako batzuk.

- A** Mugikortasun-plan oro egitean prozesu osorako partaidetza-plan bat txertatu behar da.
- B** Herritarren partaidetza sustatu eta bermatu beharreko zerbait da HMIPak eta horiei lotutako jarduerak lantzeko eta garatzeko fase guztietan, jarraipen- eta ebaluaketa-prozesuak barne.
- C** Partaidetza prozesuak ez dira homogeneoak, maila eta adierazbide ezberdinak izaten dituzte.
- D** Herritarren parte-hartzea areagotu behar da mugikortasun iraunkorrerako politikak zehazteko eta planak egiteko, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko garaian. Garraioen arloan behar den kultura-aldaketak herritarren partaidetza eta konpromisoa eskatzen du.
- E** Mugikortasun iraunkorraren alderdiak gehiago hedatzeko eta sentiberatzea areagotzeko ahalegin handiagoa egin behar da gauzatzen diren prozesuetan (zein horiei lotutako jardueretan) partaidetza sustatze aldera.
- F** Prozesuetako partaideen eta herritarren arteko informazio-jarioa handitu behar da.



cristinaenea
— fundazioa —

Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián

Patronoak dira:



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



kutxa

Laguntzaileak:

